

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

«Internacionalizazioa» laguntza programaren 2026ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2026ko maiatzaren 26ko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluak onetsitako 2024-2027 Plan Estrategikoaren bidez, ezartzen du bere jardueraren funtsezko zutabeetako bat dela ongizatera bideratutako ekonomia bat bultzatzea, jasangarritasun hirukoitza bultzatzen duena (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), lehiakorra eta berritzailea, eta aukeren sortzailea. Eta, horretarako, gizarte aberastasuna sortuko duen ekonomia indartsu eta lehiakorra finkatzera bideratutako ekintzak bultzatu behar dira, kalitatezko enplegua sortuko duen enpresa sare arin batekin, langileen parte-hartzean, berrikuntzan eta nazioartekotzean oinarrituta.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuan epe ertain/luzeko estrategia bat lantzen ari gara. Estrategia horrek lurraldeko enpresen epe laburreko beharren kudeaketa eta etorkizunean ingurune sozioekonomiko lehiakorrago bat garatzea uztartzen ditu. Ezin dugu etorkizuna eraiki eta desberdintasunen aurka borrokatu ekonomia lehiakorrik gabe, non enpresa balioan jarriko dugun Gipuzkoan enplegua eta aberastasuna sortzeko eragile nagusi gisa, eta gizartearen erronkei eta gizartearen behar aldakorrei irtenbideak ematen.

Gipuzkoako enpresei, batez ere enpresa txiki eta ertainei, epe luzera beren lehiakortasuna eta iraunkortasuna indartzen lagundu nahi diegu. Horrela bakarrik mantendu ahal izango ditugu, modu birdefinitu eta lehiakorrean, egun dauden jarduera eta enplegua, eta jarduera ekonomikoa berria eta kalitatezko enplegua sortu. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen dugu, besteak beste, gure enpresetan teknologia eta balio erantsia sartzeko prozesua sendotzea eta nazioarteko izaera indartzea.

Ekonomiaren globalizazioak eta hazkunde-maila handiak dituzten herrialde industrializatu berrien agerpenak, gaur egun, erreferentziazko esparru berri bat sortu dute, eta enpresek esparru horretan jardun behar dute. Esparru hori gero eta globalagoa eta konplexuagoa da. Esparru horretan, gero eta enpresa gehiago eta txikiagoak dira nazioartekotze-prozesuei aurre egiten dietenak, eta enpresek zailtasunak izaten dituzte merkatuak ezagutzeko eta batzuetan konplexuak diren nazioarteko eragiketarako egiteko.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da Gipuzkoaren esportazio-oinarria handitzea, bereziki ETEena, eta nazioarteko merkatuetan duten presentzia erregularra sendotzea, haien garapenerako eta hazkunderako palanka gisa. Munduari begira dauden enpresak behar ditugu, eta, horretarako, haien nazioarteko jarduera babestuko dugu, nazioarteko ingurune aurreratueneikiko loturak sustatuz. Nazioartekotzea, ez bakarrik saltzeko, baita ikasteko eta berritzeko ere; azken finean, lehiakorragoak eta jasangarriagoak izateko.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

Convocatoria de 2026 del programa de subvenciones de «Internacionalización».

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 26 de mayo de 2026:

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Plan Estratégico 2024-2027 aprobado por el Consejo de Gobierno Foral, establece como uno de los pilares fundamentales de su actuación impulsar una economía orientada al bienestar, promotora de la triple sostenibilidad (económica, social y medioambiental), competitiva e innovadora, y generadora de oportunidades. Y, para ello, plantea la necesidad de impulsar acciones encaminadas a consolidar una economía fuerte y competitiva que genere riqueza social, con una red de empresas ágil y generadora de empleo de calidad, fundamentada en la participación de las personas trabajadoras, la innovación y la internacionalización.

Desde el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos trabajamos en una estrategia de medio/largo plazo que combina la gestión de las necesidades a corto plazo de las empresas del Territorio, con el desarrollo futuro de un entorno socioeconómico más competitivo. No podemos construir el futuro y luchar contra las desigualdades sin una economía competitiva, en la que pongamos en valor a la empresa como agente principal de la creación de empleo y riqueza en Gipuzkoa, y de la aportación de soluciones a los retos de la sociedad y a sus cambiantes necesidades sociales.

Queremos contribuir a que las empresas de Gipuzkoa, especialmente las pymes, refuercen su competitividad y sostenibilidad a largo plazo. Solo así podremos mantener de forma redefinida y competitiva la actividad y el empleo existentes y generar nueva actividad económica y empleo de calidad. Para ello, consideramos imprescindible, entre otros aspectos, fortalecer la incorporación de tecnología y valor añadido en nuestras empresas y reforzar su carácter internacional.

La globalización de la economía y la aparición de nuevos países industrializados con importantes niveles de crecimiento suponen, hoy en día, el marco de referencia en el que deben interactuar las empresas. Se trata de un marco que es cada vez más global y más complejo, y en el que cada vez son más y de menor tamaño las empresas que afrontan sus procesos de internacionalización, y en el que las empresas se encuentran con dificultades para conocer los mercados y acceder a operaciones internacionales que resultan en ocasiones complejas.

En este contexto, se considera relevante incrementar la base exportadora de Gipuzkoa, especialmente de las pymes, y consolidar su presencia regular en los mercados internacionales, como palanca para su desarrollo y crecimiento. Necesitamos empresas abiertas al mundo y, para ello, apoyaremos su actividad internacional, promoviendo la conexión con los entornos internacionales más avanzados. Internacionalizarse no solo para vender, sino también para aprender y para innovar, en definitiva, para ser más competitivos y sostenibles.

Enpresen nazioartekotzea lehiakortasunerako tresna bat da, merkatu bakar baten mendekotasun-arriskua dibertsifikatzen laguntzen duena, produktibitatea hobetzeko aukera ematen duena, eskala-ekonomiak sortuz, eta marka-irudia hobeto posizionatzea ahalbidetzen duena. Hala ere, prozesu konplexua da; alde batetik, inbertsioa, plangintza eta baliabide espezializatuak behar ditu, enpresa txikienek beti izaten ez dituztenak; eta, bestetik, mundu osoan etengabe gertatzen diren gertakariak (gerrak, pandemiak, merkataritza-politikak...) eragindako inpaktuaren mende dago. Gertakari horiek zuzenean eragiten diote, eta enpresak etengabe egokitzea behartzen dituzte.

Munduko ekonomiak eraldaketa sakoneko garai bat bizi du gaur egun, aldaketa-abiadura handia eta ziurgabetasuna nabarmen handitzea ezaugarri dituena. Egoera horren arrazoiak dira, besteak beste, tentsio geopolitikoen areagotzea, hainbat eskualde estrategiko desberdinetako gatazka armatuak eta ekonomia nagusien merkataritza-politiken bilakaera, eta horrek nabarmen aldatzen du enpresen nazioartean jarduten duten esparrua.

Beraz, ziurgabetasunak eta funtsezko ekonomien geldialdiak markatutako testuinguru batean gaude, non balio-kate globalak birkonfiguratzeko ari diren, enpresak beren nazioartekotze-estrategiak etengabe egokitzea behartuz, beren lehiakortasunari eutsi ahal izateko.

Testuinguru horretan, garrantzi bereziki jotzen da enpresen laguntza eta babesa ematea beren nazioartekotze-prozesuan eta mundu mailan irekitzen den agertoki berrira egokitzeko prozesuan.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, nazioartekotzeari laguntzeko programa honen bidez Gipuzkoako enpresak kanpora irekitzea bultzatzen jarraitu nahi da, nazioartean duten presentzia eta atzerriko negozioa sendotu eta areagotu dezaten, nazioarteko merkatuan produktu berrien merkaturatzea sustatuz eta atzerriko partaidetza nagusia izango duten enpresa filialak sortzea, zabaltzea edo erostea sustatuz. Eta, era berean, talde-izaera duten merkataritza-ekintzak bultzatuko dira, balio-kate bereko enpresen (klusterra) dinamizatzaile gisa jarduten duten irabazi-asmorik gabeko erakunde adierazgarriek sustatuta, enpresa txikien nazioartekotzea errazteko.

2026ko deialdian, Diputatuen Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onetsitako oinarri arautzaileak aplikatuko dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2022ko apirilaren 13an argitaratuak, 71. zenbakian.

Dirulaguntza-ildo hau 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota dago.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Onestea Internazionalizazio programako dirulaguntzen 2026ko deialdia, erabaki honen eranskinean jasota dagoena.

Bigarren. Baimentzea 944.744,00 euroko gastua deialdi hau gauzatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokoretako kontu-sail hauen kargura:

— Produktu berria nazioartean merkaturatzea (621.083,00 euro):

1.0510.120.470.00.02.2026: 335.209,00 euro.

5.0510.120.470.00.02.2027: 285.874,00 euro.

La internacionalización de las empresas es una herramienta de competitividad que contribuye a la diversificación del riesgo de dependencia de un único mercado, permite mejoras de productividad, genera economías de escala, y posibilita un mejor posicionamiento de su imagen de marca. Sin embargo, se trata de un proceso complejo que, por un lado, requiere inversión, planificación y recursos especializados, de los que no siempre disponen las empresas más pequeñas; y que, por otro lado, está sujeto al impacto derivado de los continuos acontecimientos que se desarrollan a nivel mundial (guerras, pandemias, políticas comerciales...) y que le afectan directamente, obligando a las empresas a adaptarse continuamente.

La economía mundial atraviesa en la actualidad un período de profundas transformaciones, caracterizado por una elevada velocidad de cambio y un notable incremento de la incertidumbre. Esta situación viene motivada, entre otros factores, por la intensificación de las tensiones geopolíticas, los conflictos armados en distintas regiones estratégicas y la evolución de las políticas comerciales de las principales economías, que alteran de manera significativa el marco en el que operan las empresas a nivel internacional.

Nos encontramos, pues, en un contexto marcado por la incertidumbre y el estancamiento de las economías clave, y en el que se está produciendo una reconfiguración de las cadenas de valor globales, lo que obliga a las empresas a adaptar de manera continuada sus estrategias de internacionalización con el fin de mantener su competitividad.

En este contexto, se considera de especial importancia el acompañamiento y apoyo a las empresas en su proceso de internacionalización y en su proceso de adaptación al nuevo escenario que se abre a nivel mundial.

Considerando lo expuesto, con este programa de ayudas a la internacionalización se quiere continuar con el impulso de la apertura exterior de las empresas guipuzcoanas para que consoliden y aumenten su presencia internacional y su negocio exterior, a través del fomento y la promoción de la comercialización y el lanzamiento de nuevos productos en el mercado internacional, así como mediante el fomento, en el exterior, de la creación, ampliación o adquisición de filiales con participación mayoritaria. Y, asimismo, se impulsarán acciones comerciales de carácter grupal, promovidas por entidades representativas sin ánimo de lucro que actúen como dinamizadoras de empresas pertenecientes a una misma cadena de valor (clúster), para facilitar así la internacionalización de pequeñas empresas.

En la convocatoria de 2026 se aplicarán las bases reguladoras que fueron aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral el 29 de marzo de 2022 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 13 de abril de 2022 (número 71).

Esta línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES).

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral,

ACUERDA

Primero. Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2026 de las subvenciones del programa de Internacionalización, que se acompaña como anexo al presente acuerdo.

Segundo. Autorizar un gasto por importe de 944.744,00 euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Lanzamiento internacional de nuevo producto (621.083,00 euros):

1.0510.120.470.00.02.2026: 335.209,00 euros.

5.0510.120.470.00.02.2027: 285.874,00 euros.

- Atzerriko ezarpen produktiboak (280.722,00 euro):
1.0510.120.770.00.01.2026: 180.722,00 euro.
5.0510.120.770.00.01.2027: 100.000,00 euro.
- Sektorearen nazioartekotzea (42.939,00 euro):
1.0510.120.470.00.04.2026: 28.813,00 euro.
5.0510.120.470.00.04.2027: 14.126,00 euro.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleitura duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeari.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo us-tezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko maiatzaren 29a.—Segundo Diez Molinero, idazkari teknikoa. (3679)

ERANSKINA

Internazionalizazio programako laguntzen 2026ko deialdia.

1. Helburua eta oinarriak.

1.1. Internazionalizazio programako dirulaguntzen 2026ko deialdia egitea.

1.2. Internazionalizazio programako dirulaguntzen oinarri arautzaileak 2022ko martxoaren 29ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz onetsitakoak dira, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoak 71. zenbakian, 2022ko apirilaren 13an.

1.3. Deialdi honetako 4. eta 5. ataletan aipatzen diren eranskinak Diputatuen Kontseiluko 2022ko martxoaren 29ko erabaki-koak dira, aurreko paragrafoan aipatutakoak.

2. Finantzaketa.

2.1. Deialdi honetako dirulaguntzetan guztira 944.744,00 euro emango dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2026ko Aurrekontu Orokorren ondorengo aurrekontu sailetan banatuta:

- Produktu berria nazioartean merkaturatzea:
1.0510.120.470.00.02.2026: 335.209,00 euro.
5.0510.120.470.00.02.2027: 285.874,00 euro.
- Atzerriko ezarpen produktiboak:
1.0510.120.770.00.01.2026: 180.722,00 euro.
5.0510.120.770.00.01.2027: 100.000,00 euro.
- Sektorearen nazioartekotzea:
1.0510.120.470.00.04.2026: 28.813,00 euro.
5.0510.120.470.00.04.2027: 14.126,00 euro.

- Implantaciones exteriores productivas (280.722,00 euros):
1.0510.120.770.00.01.2026: 180.722,00 euros.
5.0510.120.770.00.01.2027: 100.000,00 euros.
- Internacionalización sectorial (42.939,00 euros):
1.0510.120.470.00.04.2026: 28.813,00 euros.
5.0510.120.470.00.04.2027: 14.126,00 euros.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 29 de mayo de 2026.—El secretario técnico, Segundo Diez Molinero. (3679)

ANEXO

Convocatoria 2026 de las ayudas del programa de internacionalización.

1. Objeto y bases.

1.1. Convocar para el año 2026 las subvenciones del programa de Internacionalización.

1.2. Las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas del programa de internacionalización son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 29 de marzo de 2022, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 71 de 13 de abril de 2022.

1.3. Los anexos a los que se hace referencia en los apartados 4 y 5 de la presente convocatoria, son los del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 29 de marzo de 2022 señalado en el párrafo anterior.

2. Financiación.

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 944.744,00 euros, distribuidos entre las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2026:

- Lanzamiento internacional de nuevo producto:
1.0510.120.470.00.02.2026: 335.209,00 euros.
5.0510.120.470.00.02.2027: 285.874,00 euros.
- Implantaciones exteriores productivas:
1.0510.120.770.00.01.2026: 180.722,00 euros.
5.0510.120.770.00.01.2027: 100.000,00 euros.
- Internacionalización sectorial:
1.0510.120.470.00.04.2026: 28.813,00 euros.
5.0510.120.470.00.04.2027: 14.126,00 euros.

2.2. Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeara.

3. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta bukatuko da 2026ko uztailaren 21ean, 13:00etan.

4. *Proiektuak hasteko epea.*

4.1. Produktu berria nazioartean merkaturatzeko proiektuen (II. eranskina) eta kanpoko ekoizpen-ezarpenen proiektuen (III. eranskina) kasuan, diruz lagunduko diren jarduketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi behar dira.

4.2. Sektorekako nazioartekotzerako proiektuen kasuan (IV. eranskina), proiektuak ezingo dira hasi laguntza-eskaera aurkeztean den eguna baino lehen.

5. *Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

5.1. Dirulaguntzen ataritik (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>) sartuko da eskatzailea eskaerara. Eredua eranskinean dago eta horrekin batera ondorengo dokumentazioa erantsi beharke zaio:

5.1.1. Produktu berria nazioartean merkaturatzeko proiektuen kasuan (II. eranskina) eta kanpo-ezarpen produktiboen proiektuen kasuan (III. eranskina):

a) Proiektua baloratzeko galde-sorta normalizatua. Bertan, honelako informazioa eskatuko da:

– Eskatzailearen ezaugarriak/Gizarte konpromisoa eta iraunkortasuna.

– Internazionalizazio estrategia eta xede den merkatua.

– Proiektuaren kalitatea eta egingarritasuna.

– Inpaktua enpresan eta ingurunean.

– Informazio ekonomikoa/Gastuen aurrekontua.

b) Proiektuaren kostuaren aurrekontu xehatua. Behar izanez gero, justifikazio modu gisa 14.4 oinarri orokorrean aurreikusten den auditoretzaren kostua sartuko da; nahitaezkoa izango da produkzio ezarpenei buruzko proiektuen kasuan.

c) Hala badagokio, entitate eskatzaileak dituen egiaztagiriak, eskumena duten erakundeek emanak, ondorengo gaietan:

– Ingurumena.

– Erantzukizun soziala.

– Berdintasuna eta bateragarritasuna.

– Euskara.

d) Produktu berria nazioartean merkaturatzeko proiektuetan, produktuaren berritasunaren betekizunaren justifikazioa, 3.2 oinarri espezifikoan adierazia, azken lau ekitaldiei buruzko dokumentazioarekin.

Enpresa ertainetan, dokumentu hauetako bat:

– Produktu berrirako jasotako laguntzen ebazpena.

– Asmakuntza patente baten eskatzaile edo titular gisa azaltzea.

Enpresa txikien kasuan, nahikoa izango da duela gutxiko katalogo bat aurkeztea, non produktu berria espresuki identifikatzen den, edo, bestela, produktuaren berritasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

3. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de las solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el 21 de julio de 2026 a las 13:00 horas.

4. *Plazo de inicio de los proyectos.*

4.1. En el caso de proyectos de lanzamiento internacional de nuevo producto (anexo II) y de implantaciones exteriores productivas (anexo III), las actuaciones objeto de subvención deben haberse iniciado a partir del 1 de enero de 2026.

4.2. En el caso de proyectos de internacionalización sectorial (anexo IV), éstos no podrán haberse iniciado antes de la fecha de presentación de la solicitud de ayuda.

5. *Documentación a presentar con la solicitud.*

5.1. A través del portal de subvenciones (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones>) se accederá a la solicitud, cuyo modelo se incluye en el anexo, y a la que deberá adjuntarse la siguiente documentación:

5.1.1. En el caso de proyectos de lanzamiento internacional de nuevo producto (anexo II) y de proyectos de implantaciones exteriores productivas (anexo III):

a) Cuestionario normalizado para la valoración del proyecto, definido. En el mismo, se requerirá diversa información referida a:

– Características del solicitante/Compromiso social y sostenibilidad.

– Estrategia de internacionalización y mercado objetivo.

– Calidad y factibilidad del proyecto.

– Impacto sobre la empresa y el entorno.

– Información económica/Presupuesto de gastos.

b) Presupuesto detallado del coste del proyecto. Incluirá el coste de auditoría previsto como modo de justificación, en la base general 14.4, que será obligatorio en proyectos referidos a implantaciones productivas.

c) En su caso, certificaciones que posea la entidad solicitante, emitidos por entidades competentes, en materia de:

– Medio ambiente.

– Responsabilidad social.

– Igualdad y conciliación.

– Euskera.

d) En proyectos de lanzamiento internacional de nuevo producto, justificación del requisito de novedad del producto, señalado en la base específica 3.2, con documentación referida a los últimos cuatro ejercicios.

En medianas empresas, alguno de los siguientes documentos:

– Resolución de las ayudas recibidas para el nuevo producto.

– Constar como solicitante o titular de una patente de invención.

En pequeñas empresas, será suficiente un catálogo reciente en el que se identifique expresamente el nuevo producto o cualquier otro documento en el que se acredite la novedad del mismo.

5.1.2. Sektorekako nazioartekotzerako proiektuen kasuan (IV. eranskina):

a) Enpresa-talde berritzailearen eta ordezkatzan duen sektorearen garrantzia deskribatzen duen memoria.

– Klusterraren balio-kateko azpisektoreak, klusterraren enpresa-kopurua, enplegua, fakturazio-bolumena eta BPGaren gaineko ehunekoa identifikatzea.

– Enpresa elkartuen zerrenda, dagokion azpisektorea, lurralde historikoa, fakturazioa eta enpleguak adieraziz, lurralde-kako laburpen-taula bat barne.

– Sektorearen izaera berritzailea, enpresa elkartuen I+G+Bko inbertsio-bolumena eta salmenta-zifraren gaineko guztizko ehunekoa adieraziz, bai eta elkarteak edo enpresa elkartuetako batak parte hartzen duen proiektu nagusiak ere, bereziki nazioartekoak.

b) Sektorea nazioartekotzeko estrategia, erakunde eskatzaileak prestatua.

c) Laguntza eskatzen den garatu beharreko jarduerak.

– Egingo den ekintza bakoitzeko, honakoak identifikatu beharko dira: zein herrialdetara, azokatara edo ekitaldira joan nahi duten, elkarteak guztira zenbat enpresa traxionatu behar dituen, eta ekimenean parte hartzeko konpromisoa hartzen duten 50 langile baino gutxiagoko enpresa gipuzkoarren kopurua.

– Planteatutako jarduerak aukeratzeko arrazoen deskribapena, aukeratutako herrialdearen garrantzia eta parte hartuko den ekitaldia, lortu nahi diren helburuei buruzko adierazleak barne.

– Aurreko ekitaldietan antzeko ekitaldietara joan aurretik izandako esperientzia.

– Ekimenak noiz garatuko diren aurreikus daitezkeen datak.

– Proiektuari egotz dakizkiokkeen kostuak. Aurkeztutako ekintza bakoitzeko kostuen aurrekontu bat egin beharko da, kontzeptu eta partaide bakoitzaren kostuaren arabera banakatuta.

d) Konpromiso soziala eta iraunkortasuna. Iraunkortasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloan dituen ziurtagiriak eta/edo planak. Erantsitako egiaztapenen arabera baino ez dira baloratuko.

e) Proiektuak baloratzeko araudian ezarritako irizpideak behar bezala aztertzea ahalbidetuko duen beste informazio bat.

5.2. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak deialdi honetan egiaztatuko ditu plataforma korporatiboan, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

6. Proiektuak justifikatzeko data.

Diruz lagundutako proiektua edo jarduera, proiektua bukatu eta hilabete naturalaren barruan zurituko da eta, edozein kasutan, 2027ko urriaren 1a baino lehen.

7. Borondatezko itzulketa.

Onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako foru diputatuari 16.3 oinarrian zehazten den moduan.

5.1.2. En el caso de proyectos de internacionalización sectorial (anexo IV):

a) Memoria descriptiva de la relevancia de la agrupación empresarial innovadora y del sector al que representa.

– Identificación de los subsectores de la cadena de valor del cluster, número de empresas del mismo, empleo, volumen de facturación y porcentaje sobre el PIB.

– Relación de empresas asociadas, indicando el subsector al que pertenece, territorio histórico, facturación y empleos, incluyendo un cuadro resumen por territorios.

– Carácter innovador del sector, indicando volumen de inversión en I+D+i de las empresas asociadas y su porcentaje total sobre la cifra de ventas, así como principales proyectos, especialmente internacionales en los que participa la asociación o alguna de las empresas asociadas.

b) Estrategia de internacionalización del sector, elaborado por la entidad solicitante.

c) Actuaciones a desarrollar para las que se solicita la ayuda.

– Por cada una de las acciones que se vayan a realizar deberá identificarse el país, feria o evento al que pretenden asistir, número de empresas totales a traccionar desde la asociación, así como el número de empresas guipuzcoanas de menos de 50 empleados que se comprometen a incluir en la iniciativa.

– Descripción de las razones de la elección de las actuaciones planteadas, relevancia del país elegido y evento en el que se participará, incluyendo indicadores sobre los objetivos que se pretenden alcanzar.

– Experiencia previa en la asistencia a eventos similares en ejercicios anteriores.

– Fechas previsibles en las que se desarrollará las iniciativas.

– Costes imputables al proyecto. Por cada una de las acciones presentadas deberá confeccionarse un presupuesto desglosado por concepto y participante.

d) Compromiso social y sostenibilidad. Certificaciones y/o planes en materia de sostenibilidad, igualdad de género, promoción del euskera y responsabilidad social corporativa. Únicamente se valorarán en función de las acreditaciones que se adjunten.

e) Otra información que permita el adecuado análisis de los criterios de valoración de proyectos establecidos en la normativa.

5.2. El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos verificará en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

6. Fecha de justificación de los proyectos.

El proyecto o la actividad objeto de subvención deberá justificarse en el plazo de un mes natural desde la finalización del proyecto y en cualquier caso con anterioridad al 1 de octubre de 2027.

7. Devolución voluntaria.

En el caso de que el beneficiario proceda a la devolución voluntaria, dirigirá un escrito al diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, tal y como señala la base general 16.3.



INTERNAZIONALIZAZIOKO PROGRAMA /PROGRAMA DE INTERNACIONALIZACIÓN

ESKAERA / SOLICITUD

Espedientea

Data

Sarrera kodea

Expediente

Fecha

Código acceso

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS SOLICITANTE

Eskatzailearen izena Nombre solicitante		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Ataria/Solairua Portal/Piso	
Herria Localidad		Probintzia Provincia	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Telefonoak Teléfonos	
Kontua Cta Cte.		Faxa Fax	

HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

Pertsonaren izena Nombre de la persona		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Probintzia Provincia	
Herria Localidad		Telefonoak Teléfonos	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Faxa Fax	

Onuradun izatearen aitortpena / Declaración de condición de persona beneficiaria.

Aitortzen dut ez nigan ez ordezkaten dudan erakundean ez dagoela pertsona edo erakunde onuradun izatea eragozten duen inguruabarrik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. Artikuluan aurreikusitakorik. Era berean, ez dago Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez testuategina onetsitakoan, aurreikusitako dirulaguntzen onuradun ezarritako debeku-kasuetako baten mende.



Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en su texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua betetzearen adierazpena / Declaración del cumplimiento del código de conducta y marco de integridad institucional.

Konpromisoa hartzen dut Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen dirulaguntza publikoei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua hasieratik bukaerara betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2018ko urriaren 2an hartutako erabakiaren arabera.

Me comprometo al cumplimiento en todos sus términos del código de conducta y marco de integridad institucional aplicable a ayudas y subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que integran el sector público foral, aprobado por el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión del 2 de octubre del 2018.

Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales.

Datu pertsonalak erabiliko dira dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta Foru Gobernantza Publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua betez. Deialdiaren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskabidean oinarritutako helburua. Tratamenduaren arduraduna deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia izango da. Nortasun, harreman eta kontu korrante datuak kontabilitate erregistroetan agertzen ez badira, nortasun, harreman eta kontu korrante datuak tratamendu batean sartuko dira Finantza eta Aurrekontu zuzendaritza nagusiaren ardurapean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubideak gauzatzea eta betebeharrak ordaintzea helburu duena.

Dirulaguntza emateko prozedura eta egin daitezkeen erreklamazioak izapidetzen diren bitartean gordeko dira datuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, NISAE elkarreragintasunerako nodoaren, sare korporatiboko aplikazioen edo beste sistema batzuen bidez, izapide hau ebazteko behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu. Zehazki, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta kontu korrontearen titulartasuna betetzen direla egiaztatuko da. Era berean, eskaera honi aplikatzen zaion araudian eskatzen diren agiri hauek egiaztatu eta eskuratuko dira, bertan aurreikusitako baldintzetan.

Egiaztapen horren eta bere datu pertsonalen kontsultaren aurka egiten badu, eskatzaileak, agiriak aurkezteaz gain, arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela. Eskubide hori balia dezake, bai eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze edo mugatzeko eskubidea ere, arduradunari zuzenduta, <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/datuen-babesa/eskubideak-erabiltzea-en-horretarako-ezarritako-formularioen-bidez>.

Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideez baliatzeari dagokienez, helbide honetan ere jar zaitezke harremanetan: dbo@gipuzkoa.eus.

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella. El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria. En caso de que los datos de identidad, contacto y cuenta corriente no figuren en los registros contables, los datos de identidad, contacto y cuenta corriente se incorporarán a un tratamiento bajo la responsabilidad de la dirección general de Finanzas y Presupuestos cuya finalidad es la realización de derechos y pago de obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, de las aplicaciones de la red corporativa u otros sistemas efectuará las consultas y verificaciones necesarias para la resolución del presente trámite. En concreto, se comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias, obligaciones frente a la Seguridad Social, así como la titularidad de la cuenta corriente. Igualmente, se verificarán y obtendrán los siguientes documentos exigidos en la normativa aplicable a esta solicitud en los términos en ella previstos.

En caso de oponerse a esta verificación y a la consulta de sus datos personales, la persona solicitante además de aportar los documentos deberá justificar motivadamente su oposición. Puede ejercer este derecho, así como el de acceso, rectificación, supresión o limitación dirigiéndose a la persona responsable, a través de los formularios dispuestos en <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/proteccion-datos/ejercicio-derechos>.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.



Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones.

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

PROIEKTUA / PROYECTO

Izena
Denominación
Proiektuaren azalpena
Descripción proyecto

Eskatutako zenbatekoa / Importe solicitado

Eskatutako zenbatekoa
Importe solicitado

PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK / OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO

	Ditu Tiene		Ez ditu No
--	---------------	--	------------------

Entitate eskatzaileak honako dirulaguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta proiektua amaitu bitartean, aurrezten duen dirulaguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el proyecto.

Erakundea Organismo	Deialdia Convocatoria	Onartze data Fecha de aprobación	Zenbatekoa Importe	Onartutako dirulaguntza Subvención concedida
GUZTIRA/ TOTAL				



**MINIMIS LAGUNTZEN AITORPENA
DECLARACIÓN AYUDAS MINIMIS**

	Ditu Tiene		Ez ditu No tiene
--	---------------	--	---------------------

Hauek dira erakunde publikoek edo aurrekontu publikoen finantzatzen diren erakunde pribatuek aurreko hiru urteetan emandako minimis dirulaguntzak:

Todas las ayudas de minimis de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos concedidas en los tres años previos son las siguientes:

Erakundea Organismo	Deialdia Convocatoria	Onartze data Fecha de aprobacion	Zenbatekoa Importe
GUZTIRA / TOTAL			

<p>Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte).</p>	<p>La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH</p>
<p>EKS kodea (Egiaztapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoan zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv</p>	<p>El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv</p>
<p>HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean.</p>	<p>El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia.</p>